



URREZKO MAKILA JASOKO DU LAUDIO IKASTOLAK

**AZAROAREN 27AN BURUTUKO DA EKITALDIA
11:00ETAN ALDAI PLAZAN; ZATOZ PARTE HARTZERA!**

Pandemia dela eta, aurten ere ez da Euskararen jaia ospatu Laudion, baina iaz bezala bertan burutzen den Urrezko makilaren ekitaldia antolatu du herriko euskalgintzak euskara sustatzeko ahaleginak etenik izan ez dezan.

*Urrezko makilak herriko eragileek euskalduntze prozesuan egindako ekarpenaren aitortza irudikatu nahi du eta aurtengoan **Laudio Ikastolak jasoko du ikasturte honetan ospatuko duen 50. urtemuga probestuz.***

*Ekitaldia **azaroaren 27an, 11:00etan burutuko da Laudioko Aldai plazan** eta hurrengo larunbatean, abenduak 4, Luiaondon ospatuko den Aiaraldeko Euskararen eguna iragartzeko ekimena ere izango da.*

***Laudio Ikastolako komunitate osoa bertoratzera gonbidatzen dugu**, jai giroan 50. urteurrena herri-ratzeko lehen ekimena guztion artean parteka dezagun.*

ZATOZ IKASTOLAK HERRIARI JAIALDIRA

**AZAROAREN 27AN, LARUNBATA, 20:00ETAN
BILBOKO EUSKADUNA JAUREGIAN**

Ekitaldiak 2021 urtean ospatutako jaiei, Laudioko Araba Euskarazi, aitortza berezia eskainiko die, hortaz, Laudio Ikastolako kideok bereziki bertoratzera gonbidatzen zaituztegu.

sarrerak
erosi

